

#HiloTesis Tesi-harien lehiaketa 2021 UPV/EHU

Doktoretzako ikasleen artean jarduera dibulgetzailea sustatzeko, CRUE Universidades Españolasen Dibulgazio eta Kultura Zientifikoaren Sarearen (RedDivulga) barruko «baterako jarduketan» lantaldeak «Tu Tesis Doctoral en un Hilo de Twitter: #HiloTesis» lehiaketaren I. edizioa antolatu du, eta UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK lehiaketa horretan hartuko du parte. Parte hartzaileek beren tesiaren berri eman beharko dute gehienez ere 20 txio dituen hari baten bidez, Twitter sare sozialaren mugen eta aukeren barruan.

Zer da #HiloTesis?

CRUEren I+G+B saileko Dibulgazio eta Kultura Zientifikoaren Sarearen (RedDivulga) ekimen bat da, eta doktoretza egin berri dutenen eta doktoregaien komunikazio nahiz trebetasun dibulgetzaileen garapena sustatzeko helburua du.

Lehiaketaren bidez, prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileek nahiz doktoregaiak – doktorego tesia azken 6 hilabeteetan amaitu dutenek edo orain garatzen ari direnek– zer egiten duten, nola egiten duten eta zergatik egiten duten kontatuko diote gizarteari. Horretarako, Twitterren hari bat idaztea proposatzen da sare soziala aprobetxatuz eta komunikazio kanal moduan ematen dituen aukerak baliatuta, hau da, tesiaren edukia hizkera arrunt, irisgarri eta erakargarrian adieraziz.

Parte hartzaileek bete beharreko baldintzak

UPV/EHU doktoregai diren ikasle guztiek eta doktorego tesia egin berri dutenek (azken 6 hilabeteetan) har dezakete parte. Derrigorrezkoa izango da lehiakideek Jardueren Dokumentuaren eta Ikerketa Planaren (RAPI) gutxienez ebaluazio bat gaituta izatea edo lehiaketa hasi aurreko sei hilabeteetan aurkeztu izana doktorego tesia. Parte hartzaileen eskaerak ez badituzte baldintza horiek betetzen, ez dira kontuan hartuko.

Hautagaitzek tesiaren zuzendariaren oniritzia beharko dute, harian ematen, txertatzen edo estekatzen den informazioa publikoki zabaltzea daitekeela bermatzeaz gain. Ikerketak konfidentzialtasun akordio baten eraginpean badaude, ikasleek alderdi guztiekin egiaztatu beharko dituzte lehiaketan baliatuko diren edukiak. Unibertsitate parte hartzaileak eta EUEBk ez dute inolako ardurarik izango baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen arau hausteen gainean.

Sariak

Lehiaketan Espainiako estatu osoko 3 saridun egongo dira, eta saridunak 3 unibertsitate desberdinekoak izango dira derrigorrean. Saridunek *tablet* bat irabaziko dute. Unibertsitateak irabazlea haren ikasle denean baino ez du entregatuko saria (*tablet* bat).

Antolakuntza

Lehiaketa apirilaren 1etik 23ra egingo da, bi egunak barne. Ez dira kontuan hartuko epe horretatik kanpo argitaratzen diren hariak.

Ikasleek, haria argitaratu ondoren, lehiaketan izena eman eta hariaren esteka bidali beharko dute formulario honen bidez: https://forms.office.com/Pages/ResponsePage.aspx?id=5rosxPRhjEmRB2qM9fAeVzkKd9L_IABMqre6caHEGuJUNVNBTTNVNjRMVjZGM0RaMjZKT0wxS1RKUy4u.

Ez dira kontuan hartuko formularioaren bidez ondo bidali ez diren hariak.

Hariaren lehen txioan honako hauek aipatu beharko dira: @RedDivulga, @upvehu eta @ehuscientia. Lehen txioa, halaber, «Abro #HiloTesis» aipamenarekin amaituko da.

Arauak eta jarraibideak

Parte hartzaileek arau eta jarraibide hauek bete beharko dituzte:

1. Kontu bat izan behar dute Twitterren.
2. Parte hartzaile bakoitzeko hari bakarra hartuko da kontuan, eta hari horrek ezin ditu 20 txio baino gehiago izan. Ez dira kontuan hartuko beste erabiltzaileen erantzunak.
3. Edozein elementu erabil daiteke lanaren aurkezpena aberasteko, irudiztatzeko edo, besterik gabe, irakurlea erakarri edo aurkezpena erakargarriagoa izateko (estekak, emotikonoak, bideoak, irudiak, GIFak, etab.).
4. Lehiakideek ematen duten informazio guztiak publikoki argitaratzeko baimena izan behar du.
5. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.
6. Haria epe honen barruan argitaratu behar da: apirilaren 1eko 00:00etatik apirilaren 23ko 23:59ra arte.
7. Haria argitaratu ondoren, formulario hau bete behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko: https://forms.office.com/Pages/ResponsePage.aspx?id=5rosxPRhjEmRB2qM9fAeVzkKd9L_IABMqre6caHEGuJUNVNBTTNVNjRMVjZGM0RaMjZKT0wxS1RKUy4u. Formularioa ere lehiaketako epeen barruan bete beharko da, hau da, 2021eko apirilaren 23ko 23:59a baino lehen.

Epaimahaia eta balorazio irizpideak

Parte hartzaileen hariak formularioen bidez jaso ondoren, lehiaketaren antolakuntza taldeak unibertsitate bakoitzari bidaliko dizkio hariok, unibertsitateko harremanetarako pertsonari, hain zuzen.

Unibertsitate parte hartzaile bakoitzak, 15 eguneko epean, hiru hari hautatuko ditu deialdian zehazten diren irizpideen arabera, eta RedDivulgak proposatzen duen epaimahai nazionalak ebaluatuko ditu. Epaimahaia bost kidek gutxienez osatuko dute, eta haietako batek aditua izan beharko du komunikazioaren esparruan. Epaia 2021eko maiatzaren 21etik 28ra emango da.

Balorazio irizpideak berdinak izango dira ezagutza esparru guztietan:

- 1.- Adierazpena eta edukia (5 puntu gehienez). Hizkera arrunta (teknizismorik eta jargoi zientifikorik gabe) eta dibulgatzailea erabiltzea, adituak ez diren irakurleek testuingurua, ikergaia eta horren garrantzia uler ditzaten. Metodologia, emaitza garrantzitsuenak eta ondorioak deskribatzean, egitura logikoa eta erakargarria erabiltzea. Aldizkari eta eduki espezializatuetera jotzeko estekarik ez erabiltzen saiatzea. Ez mintzatzea arinkeriaz ikerketaren edukiaren inguruan; hau da, edukiak dibulgatzailea eta gertukoa izan behar du, baina zehatza.
- 2.- Sormena (5 puntu gehienez). Erabili edukia aberasteko elementu egoki eta erakargarriak, hala nola emotikonoak, irudiak, estekak, bideoak edo GIFak. Aurkezpenak jakin-mina piztu behar die irakurleei.

UPV/EHUko epaimahaia, balorazio irizpideak eta saria.

RedDivulgatik helaraziko dizkiguten hautagaitzetatik, CRUEren deialdian ezarritako irizpide berberak erabiliz aukeratuko ditu UPV/EHUko epaimahaiak bere 3 hiru tesi-hariak.

UPV/EHUaren kasuan epaimahaia lau pertsonak osatuko dute: laurak izango dira zientzia-komunikazioan adituak: bat Komunikazio-bulegoak izendatua, bigarrena Doktorego-eskolak izendatua, hirugarrena Kultura Zientifikoko Masterreko irakasle bat, eta laugarrena UPV/EHUren barruan deialdi honen ardura duen Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko zuzendaritzak izendatua.

UPV/EHUko tesi-hari onenak, EHUDendan erabiltzeko 300€-ko bono-saria jasoko du.

Amaierako gogoeta

Deialdiaren oinarriak hausten edo datuak ezkututzen, aldatzen edo manipulatzeko badira, lehiakidea lehiaketatik kanpo gera daiteke eta, hala badagokio, saria itzuli beharko du.

Ohiko galderak eta gomendioak

Bidali al dezaket hari bat baino gehiago?

Ez. Hari bakarra hartuko da kontuan parte hartzaile bakoitzeko.

Txioak edozein hizkuntzatan argitaratu daitezke?

Edozein hizkuntza ofizialetan argitara daitezke txioak. Gure unibertsitatean aukeratutako 3 harien artean bateren bat euskaraz idatzitakoa balitz, egileari berari eskatuko zaio txioa itzultzeko maila nazionalako epaimahaiari helarazi aurretik.

Bereiziko al dira ezagutza esparruak?

Ez. Lehiaketak zientziaren komunikazio dibulgatzailea sustatzea du helburu; horrenbestez, ez da kontuan hartuko ezagutza esparrua zein den, ezta emaitzek edo doktorego tesitik eratorritako argitalpenek zenbaterainoko garrantzia duten ere.

Parte har al dezaket nire tesia lehiaketaren epeen aurretik defendatu badut?

Bai, baldin eta lehiaketa hasi aurreko 6 hilabeteetan defendatu baduzu.

Erabil al ditzaket elementu «apaingarriak» (emotikonoak, GIFak, etab.) harian?

Bai, baina kontuan izan komunikazioa aberastu behar dutela, erakargarriagoa izan dadin.


Aipa edo estekatu al daitezke lanetik eratorritako argitalpenak edo lana testuinguruan jartzen dutenak?

Hobe da halakorik ez egitea. Txioen irakurleak ez dira adituak izango; beraz, ondo erabili behar dira material espezializatueta (hala nola artikuluko zientifikoetara, kongresuko zientifikoaren aurkezpenetara eta abarretara) jotzeko estekak. Gainera, ez da kontuan hartuko ez emaitzarik ez lanetik eratorritako balizko argitalpenik. Zure tesia 20 txiotan laburbildu behar duzu, prestakuntza zientifikorik gabeko edonork ulertzeko moduan.

Nola egiten dira Twitterreko hariak?

Ez baduzu sekula Twitterreko haririk argitaratu, jarraian azalduko dizugu nola egin sare sozialaren web bertsioaren bidez.

Hurrengo irudian, txio bat argitaratzeko leihoa ikusten da: «Txio» botoiaren gainean sakatu behar duzu, Twitterren orri nagusitik, hain zuzen.



Beheko aldean, eskuinean, «⊕» botoia aurkituko duzu; horren bidez, txioak lot ditzakezu, eta amaieran argitaratu. Modu horretan, txio bakoitza banan-banan idatz

dezakezu (esteka, irudi eta abarrekin) eta, amaieran, txio guztiak batera argitaratuko dituzu «Txiokatu guztiak» botoiaren bidez, beheko irudian ikus daitekeen bezala.



Zure haria aldez aurretik egituratzea gomendatzen dizugu. Pentsatu txioen edukia zein izango den, zer baliabide gehituko dituzun eta zer kontatuko duzun txio bakoitzean 240 karaktere baino gutxiago erabiliz. Pentsatu nolakoak izango diren mezuak: mezu laburrak, gainerakoak irakurri beharrik gabe uler daitezkeenak, dibulgatzaileak, erakargarriak, interesa eta sentimenduak pizten dituztenak eta, finean, irakurlearen arreta eta interesa erakartzen dituztenak.